


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 jaitsi ziren 2003ko apirilean

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko apirila, 2002ko apirilarekin alderatuta) %2,5ekoa izan da.

2003ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,3 jaitsi zen eta apirilerako urte arteko tasa %2,5era iritsi zen, Eustaten datuen arabera. Lehengaien kostuaren jaitsierak (%-0,5) markatu du apirileko indize orokorra, beste osagaia, hau da, lan-eskuaren kostua ez baita aldatu aldi horretan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza apirileko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldiari (2003ko apirila, 2002ko apirilarekin alderatuta), lan-eskuaren kostua %4,0 igo da eta lehengaien kostua, berriz, %1,4.

2003ko apirileko guztizko kostuen jaitsiera era desberdinean banatu da bi azpisektore nagusien artean: erreferentzia-hilean, Eraikinak azpisektoreko kostuak %0,1 jaitsi dira eta obra zibila azpisektorekoak are nabarmenago (%-0,8). Hala ere, bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, biak igo dira era berean, Obra zibileko kostuak eta Eraikinekoak ere %2,5 igo baitira.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko apirilean, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: leherkariak eta gasak (%1,1), plastikozko hoditeria (%0,9) eta energia elektrikoa (%0,9). Bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitsiera izan dute honako lehengaiak: petroliotik eratorritakoak (%-14,1), kristala (%-1,5), karea,

igeltsua eta eskaiola (%-0,9) eta estrakzio-agregakinak (%-0,5) lehengaiak, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003KO APIRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,1	-0,3	2,5	2,3	
ERAIKINAK	122,5	-0,1	2,5	2,3	
OBRA ZIBILA	121,1	-0,8	2,5	2,2	
LEHENGAIEN KOSTUA	115,1	-0,5	1,4	1,1	
ERAIKINAK	115,6	-0,2	1,4	1,1	
OBRA ZIBILA	113,6	-1,3	1,4	1,0	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	133,5	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxe+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es